

EIBAR'KO MUSIKALARIAK

AITA JOSEP EIZAGA ETXEBARRIA (batzuetan Jose Etxebarria lez agertzen da). Prantziskotarra, Eibar'en jaioa. Organugillea, San Andres parroko organua 1658'an antolatu ebana, baita 1667'an Aita Eizaga berberak gozatu eban eta beste laguntzaille batzukaz bear zituan beste erregistratu barri batzuk jarri be.

1667'an Arrate'ko organua eragin eban, 1816'an zaarra zalako baztertua izan zana. Beronek 1677'an egiña da Arrasate'ko organua be. Urte onetan berean Alkala Henares'ko San Diego'koa be bardin. Eta 1682'an Arantzazu'koa antolatu eban.

Ez dakigu artu-emonik izan ebanik Leon'go katedraleko organua 1644'an eraiki eban Pedro Etxebarria'rekin.

Beraren ikasle izan zan beste Jose Etxebarria bat, ez-konduta Oñati'n bizi izan zana.

ANDRES EGIGUREN. Eibar'koa, 1666'tik 1667'ra bertan San Andres parroko organu-jotzaille izan zana.

FERNANDO BUSTINDUI. Eibartarra; organista lez Eibar'ko San Andres parrokian egon zana, urtean 130 xe edo bellon-dukategaz ain zuzen, lan-sari legez. 1741'an il zan.

FERNANDO EGIGUREN ETA ESKAREGI. Eibar'en jaio zan 1743'ko epaillaren 17'an. Arantzazu'n artu eban prantziskotar soiñekoa, 1760'an profesa egiñik. Arantzazu'ko komentuko artxibuan ba-dagoz beronen musika-lanak: *Agur Erregiña*, *O Gloria*, *lenengo eguneko Irugarren Erosta*, *iru Meza* eta *Parce nihi Domine* bat

Aita Donosti'k bere liburu *Música y músicos en el País Vasco* (Donostia, 1951), 39'garren orrialdean diñoanez, «Organu-jotzaille onein lanak «giltz-kako edo organurako» garai aretako egikera ariñean osoturik dagoz eta ez eliz-oiturari jarraituz liturji gaiak oiñarri dituela».

Aita Jose Arrue'k, bere lan *La música de iglesia en la historia del País Vasco, Eusko-Ikaskuntza'ren Lenengo Batzarra* deritxon bilduman, 849'garren orrialdean, eibartar musikariaren lau abotsetara abestuteko Motete bat ikus-miratzen dau, baita jakin-erazo be ba-dirala beronen beste musika-lan batzuk Arantzazu'ko eres-artxibuan (850 orrialdean).

Aita Donosti'k bere *Música de tecla en el País Vasco*, siglo XVIII (Donostia, 1953), 25'garren orrialdean, aren *Concierto airoso*'ren partitura oso-osorik ber-egiten dau.

ANDRES SOSTOA ZULOAGA. Eibar'en jaio zan 1745'ko otsaillaren 11'an, eta prantziskotar abitua artu eban, bere anai Manuel'ekin batera, 1764'an, urrengo urtean profesa egiñik. Oni buruz Probintziko illen liburuak diñosku: «Arantzazu'n il zan 61 urte zituala; ospetsua izan zan Euskalerriko probintzian kantu lauan idatzi zituan musika lanakaitik batez be». Emen be Aita Donosti'k organu-jotzaille ontaz diñona aitatu geinke, au da, organu-jotzaille onein lanak «giltz-kako edo organurako» garai aretako egikera ariñean osoturik dagozala eta ez eliz-oiturari jarraiki liturji gaiak oiñarri dituela».

MANUEL SOSTOA ZULOAGA. Ander'en anaia. Eibar'en jaio zan 1749'ko maiatzaren 23'an. Prantziskotar jantzia artu ta profesa egin eban bere anaiak egin eban egun-egunean, esan dogunez. Eta biak izan ziran musikari izen aundikoak.

Aita Donosti'k, *Música ta músicos en el País Vasco* la-

nean, 41'garren orrialdean diño «prantziskotar anai bi zirala; eurotatik bata Iztueta'k goratzen dau dantzaen musika liburuaren Sarreran». Iztueta'k bada Aita Manuek Sostoa aitutzen dau «eliz-kantu edo lauan (polifonizko, jogailluzko, esan nai dau), musikolari bikain legez. Arantzazu'ko artxibuan ba-dira aren lanetatik batzuk, 1768, 1801, 1802'an idatziak.

Eibartar musikolari au besteak baiño, bere garaikoak baiño gaurkotasun geiagokoa be ba-dala diño, besteak baiño biziagoa eta itxura danez erri-musika batzuk dakazala gogora, baita kitarrak be, bostgarren nausiak euren billostasun osoan agertzen diran zatietan bereziki. Idazle berberak *Música de tecla en el País Vasco, siglo XVIII* liburuan, Aita Sostoa'ren eresi-lan bi argitaratzen ditu, bere-berea dauan alako bizitasunez jantziak, *Allegro'n* batez be, eta onek dirudi urriñetik beintzat erri-ritmuren bat gogora dakarskula. Lan orretan, 36'garren orrialdean dator, *Sonata para clave u órgano*, eta, 41'garren orrialdean, *Allegro'a*.

JOSE ETXEBARRIA. Eibartar jatorriz, Karlos III erregearen organugille; beronek barriztu ta orduko estilora jarri eban, 1787'an, Eibar'ko San Andres eleizako organua, beste zeregin barik Madrid'etik onaxe aldatzen zala.

PEDRO MARI SARASKETA. Eibartar au be, 1828'an emengo San Ander parroko organujotzaille oizko egin zana. Bost urterako egin zan kargu onen jabe, garbitasunak egin ondoren, eta urteango 100 dukat alogerean berbaturik. Gerroago, 1830'an, 300 dukatera jaso zan itun au, mutil gazte biri musika eskola emotekotan.

JOSE KRUTZ GISASOLA. Eibar'en jaioa. Ander Deunaren eleizako organu-jotzaillea izan zan.

LAUREANO GISASOLA MENDIZABAL. Jose Krutz'en semea eta Juan Bautista'ren aita. Eibar'en jaio zan 1849'ko garagarrillaren 4'an. Ander Deunaren parroko organu jotea egin eban. 1915'ko bagillaren 13'an il zan.

ILDEFONSO IRUSTA ETXEBERRIA. Eibar'en jaioa

1859'ko urtarrillaren 23'an. Ogibidez xixelari. Udaletxeko eresbatzaren sortzaille ta zuzendari lez, berak emon eutsan ari Eibar'en iñoiz euki dauan bultzakadarik aundiena. 1896'an arek sortu ta zuzenduriko eresbatzak (bandeak) 26 musika jotzaille eukazen, eta 1902'an 34 ziran berori osotzen eben jotzailleak. Eta garai ontan asten dira, ain zuzen, eresbatz onek euki ebazan garaipenik zaratatsuenak. 1902'garren urte orretan, ba, Donostia'n ospatu zan eresbatzen leiaketa edo nor-geiagokara aurkeztu zan eta lenengo saria irabazi eban; urrengo urteetan be bardin egifiik.

Eibar'ek euki dauan eresbatz-zuzendaririk garrantzitsue-na da, zuzendari barne-jitez gero. Ez dakigu, ziur beintzat, musikaz idatzi ebanik.

1943'ko urrillean il zan.

KRISPULO GISASOLA AXPE. Eibar'en munduratu zan 1876'ko bagillaren 9'an. Laureano Gisasola'ren ostean, 1910'an organista lez jarri zan Ander Deunaren eleizan. Santa Zezilia eresbatzaren zuzendari izan zan, baita erabat Orfeoi eibartarrarena be. 1912'ko apirilaren 2'an il zan.

Gisasola abizena eroan arren, ez dakigu ziur aidetasunik daukan beste Gisasola musikalari batzukaz: Jose Krutz, Laureano eta Juan Bautista (aitita, aita ta billoba).

JUAN BAUTISTA GISASOLA INARRAIRAEGI. 1885'ko dagonillaren 14'an jaio zan. Laureano ta Jose Krutz'en seme ta billoba, kirian-kirian, biak Deun Ander Apostoluaren txadonan organu-jotzaille.

Amabi urtedun zala Salamanka'ko apaiz-ikastegian sartzen da, apaiz-ikasle. 14 urtegaz apaiz-ikastegiko abestaldea berak zuzentzen dau. 16 urteko zalarik, eliz-ikasketak itxi ta Eibar'era dator. Eres-idazle izan nai dau eta *Salve* bat taiutzen dausku; bitartean Bergara'n Retana maisu organistegandik musikea ikasten diardu.

Aren eres-lanen artean oneik nabarmentzen dira: *Pozet beterik*, 1904'an Arrate'ra egin zan erromes-ibiltaldirako idatzia; *Misa a tres voces mixtas* (1915), *Himno de la Coronación* (1929), *Ecce Panis* (1929), *Himno a San Agustín* (1930), Erra-

baleko lekaimentzat egina, Agustin Deunaren XV'garren Eun-urte-urrena zala-ta; *Aixia Motxia* sei abots nastureko (1933), *A Mutill* sei abots nastureko (1935), *Suite eibartarra*, umore on eta indar aundiko (1945), *Salve Regina* (1946), *Panis angelicus*, abetzoliarentzat, eta organu-laguntasunaz (1947). *Himno a San Roque* eta *Asumpta* be idatzi zituan (lan biak ain maite eban Elgeta'ko erriari eskiñiak), eta *Ave Maria* bat, abes-gorendunentzat eta gizonezkoen iru abotsetarako. Eta bere lan guztien gaiñetik, nabarmendu bear dogu bere *Tota pulchra* besterik ez lakoa, ezpairik bage bere lanik ederrena, Arrate'ko Amari eskiñitakoa.

Juan Bautista Gisasola'k, sentikor eta biotz-bera izatez gaiñ, erritar abesbatzen afurria ondo ezagutzen eban, eta onek egiten eufson Euskal Erriko batutarik onenentzat eukia izatea.

1948'ko maiatzaren 4'an il zan.

ISAIAS HERNANDO MANRIKE. Burgos'en jaio zan 1889'ko garagarrillaren 6'an. Burgostar uriburuan burutu zituan bere musika-ikasketak. Eibar'era etorri zan, bere semetako errira, 1910'an. Organu-jotzaille izan zan Ander Deunaren parrokiari. Bera, kargu orretan ari zala jarri zan, 1922'garren urtean, gaur daukagun organua. Oso zintzo bete eban bere egitekoa. 1957'ko otsaillaren 27'an il zan.

AGUSTIN ZULUAGA ALDEKOA. Durango'n jaio zan 1899'ko maiatzaren 15'an. Beste eibartar semetzako bat izan zala esan gengike, gaztetxo zala etorri bait zan Eibar'era bizi izaten. Eibar'ko Musikako Udal-eresbatza zuzendu eban, kargu au nor-geiagoka lortu ondoren. Erabat Musikako Udal-Akademiko zuzendari be bera izan zan, eta Breton Orkestaren zuzendari. Goi-argi aberatseko musika idazlea. Nainko eres-lan osotu eban, euroatik gailen eta nabarien diranak, oneik ditugu: *Mortuus est*, Aste Santuz abesten zana; *Ana Mari* (zortziko); *Con garbo y salero* (pasadoblea); *Cielito* (habanera); *Pipiola* (tango); *Torrerica* (fox); *El muy culón* (txotis); eta beste asko, *Fumen*, *Alma gaucha*, *Bolingo* eta *Los alegres alpinistas* (azken au, Eibar'ko Kirol Alkarteari eskiñia). Ildefonso Irusta zuzendari aundiaren jarraille

